

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



El desvío

Marcelo Luján

KUTXA FUNDAZIOA

62 orrialde

7 euro

Gaztelaniazko ipuin-saria

Madrilen bizi den Marcelo Luján argentinarra izan zen iaz Donostia Hiria ipuin sariaren irabazlea gaztelaniaz. *El desvío* lanari esker lortu zuen saria; saltzaile bat du protagonista kontakizunak: putzik balio ez duten galdara zahar batzuk saltzen ahalegindu behar du mendi artean galduta dagoen herrixka batean. Eskarmentu txarra izan du gizonak hara aurrez egindako bisitetan eta oraingoan ere ez doa oso pozik. Horregatik-edo, errepidean aurrera doala burura datozkio diktadura garaian Ustariz kapitainak hantxe egindako txiki-zioak: langile grebalaria, anar-

kistak eta enparauak akabatu baitzituzten bide hartan. Bidean doala, laino artetik emakume bat azalduko zaio, odol arrastoekin, laguntza eske. ■

Txillardegiren aurreneko nobelaz

1957an Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* plazaratu zuen *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelak euskal literaturari egin zion ekarpena izan zuten hizpide Euskal Herriko Unibertsitatearen 2007ko Udako Ikastaroetan. Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak bultzatu zituen jardunaldi horiek eta orduan azaldutako ikerketak jaso ditu orain akademiaren *Euskera* aldizkariak. Duela 50 urte *Leturiaren egunkari ezkutua* euskal literatura-aren baitan ekarri zuen berrikuntza-aren maila argitzeko, 1936ko gerra aurreko eleberrigintza eta batik bat haren ondoren sortutakoa berraztertu zituzten: 1946an Jean Pierre Iratxetek argitaratutako *Antton* nobela eta Hegoaldean gerraondoan sortutako *Katakumbetako belaunaldiak*, Jon Etxaide eta Jose Antonio Loidi buru, plazaratutako idazlanak izan ziren aztergai. ■



Euskera

Batzuen artean

EUSKALTZAINDIA

286 orrialde

10 euro



Debako Arte Eskolak 25 urte

Batzuen artean

DEBAKO ARTE ESKOLA,
KUTXA FUNDAZIOA

116 orrialde / 30 euro

Debako Arte Eskolak 25 urte daramatza bizirik

1970ean jarri zen abian Jorge Oteizak hainbeste aldarrikatutako Debako Arte Eskola. Han, espiritu berritzailez, euskal kultura berreskuratzeari ekin zioten. Jorge Oteizaz gainera, Koldo Azpiazu, Agustín Ibarrola, Remigio Mendiburu, Jose Antonio Sistiaga eta Jose Luis Zumeta aritu ziren lan horretan, besteak beste. Lorpenak handi samarrak izan baziren ere, iraupen laburra izan zuen, Carmelo Urdangarinek *Debako Arte Eskolak 25 urte* liburuan azaltzen dituen arrazoiengatik. Dena dela, eskola ez zen desagertu. 1981. urtean eskulangintzarako zentro bihurtu zen, eta arte eskolako irakaspenak eskaintzen jarraitu zuen mende laurdenez, gaur arte. Handik sortutako emaitzak jaso ditu Kutzak argitaratutako liburuak. ■

Mutiko baten hautaketak

Irakurle gazteenentzat Antton Kazabonek sortu eta Enrique Morentek marraztutako *Elorriren irribarrean* aspaldiko garaietako eta lurralde urrunetako herri txiki baten ohiturak agertzen dira. Lurralde hartan jaiotakoek sei urte bete bezain laster mundua ezagutzeko agindua zuten. Horretarako zeukaten tren gorria, Ortzigain izeneko mundu txikiari buelta osoa ematen ziona. Eta haraxe igo zen Elorri mutikoa ere. Bidaiak zazpi geltoki zituen: Kolorezelai zen aurrenekoa, eta Elorrik arrosa gorri bat hartu zuen handik; Musikalanda etorri zen gero, eta Elorriren bihotz triste kantari jarri zen; Maitasunlur ezagutu zuen hurrena, bihotza muxuz bete zion lurra; baina ondoren Gorrotosoro, Abasleku eta Zorigaitzenea etorri ziren. Azkenik Zorionmendira iritsi zen, eta handik, etxera. ■



Elorriren irribarrean

Antton Kazabon,
Enrique Morente

IBAIZABAL

24 orrialde

7,30 euro



Ez gara elkarrekin zahartuko Arnaud Cathrine

ELKAR
76 orrialde
9,20 euro

Hamabi urteko amorante tematiarenak

Aiora Jakak euskaratu du *Ez gara elkarrekin zahartuko* lana. Hamabi urte bete berri dituen mutiko maitemindu baten erabakiaren berri ematen zaigu liburu horretan: gurasoen etxetik alde egin nahi du, baina ezin. Bere maitañoarekin bizitzera joatea erabaki du gazteak. Neskak hamabost urte inguru ditu, eta gurasoengan bizi da. Hantxe egingo dute bere habia maitemindu biek; logela berean biziz, ohean janez eta elkar musukatuz. Neskaren gurasoek seme gisa maitatzen dute mutikoa, arazorik ez. Horrela aitortuko die aita eta amari agur gutun batean. Haatik, kontuak nahastuko zaizkio, bere anaia txikiak gutuna aurkitu eta anaia nagusiak etxetik alde egin ez dezan ahalegin guztiak egingo dituelako. |

Euskal itsasalde osoa hamahiru etapatan zeharkatzeko era

Lapurditik Bizkaira dauden 225 kilometroak hamahiru geldialdi eginez osatzeko ibilaldi ederra aurkezten du *Euskal Herria* aldizkariak bere azkeneko zenbakian. Hasteko Baionatik Donibane Lohizunera; handik Hondarribiara; atsedean hartu eta Pasaiara, Donostiara abiatu aurretik; gero Zarautzera eta ondoren Debara, atzetik Lekeitiorako bidea hartzeko; behin han, Elantxobera iristeko indarrak hartu, Gernikara joan, ondoren Bakiora eta handik Plentziara; Zubi esekia pasa eta Covarón ibaira iritsiko gara. |

Euskal Herria

Batzuen artean

SUA

132 orrialde / 15,30 euro



GARAZI GOIA

«Narrazio honen kontaketa oso gordina da askotan»

Maitasuna galtzean, zer du bereziki protagonistak barruan?

Amodio galdu hori berreskuratzea obsesio bihurtzen da berarentzat, eta obsesio hori deskribatzeko elementu ugari erabiltzen dira narrazioan. Esate baterako, ametsak leku garrantzitsua dute, beti ere galdutakoaren fantasiak azpimarratuz, edo eldarnioa, eromena... Baita inoiz bidali gabeko eskutitzak ere, protagonistak nolabait barruan sentitzen duen min hori ateratzeko erabiliak. Egia da narrazioa momentu batzuetan mutur arriskutsuetara eramaten dela. Baina azken batean hori zen helburua, neskaren sufrimendu hori adieraztea.

Nolanahi ere, pertsonaia ez dago guztiz bakarrik...

Ez. Nobelan pertsonaia esanguratsu asko ateratzen dira. Eta liburuaren estruktura ere pertsonaien egituraturik dago, kapituluetan Londresko bere bizitza mugatu edo baldintzatzen duten esperientzia berriak iradokiz.

Pertsonaien artean, zeintzuk dira garrantzitsuenak?

Carla adibidez: istorioan oso momentu eta leku berezia du. Eta gero badago beste pertsonaia bat, "Maitale zibernetikoa" izenekoa. Protagonista Interneteko txat batean sartuko da "Julieta zauritua" izenarekin. Sarearen beste aldean dagoen "Maitale zibernetikoa" rekin partekatuko ditu bere konfesio eta min guztiak. Badira neskari obsesioa gaintzen lagundu nahi dioten pertsonaia gehiago ere. Tituluari dagokionez, irakurle bakoitzak erabaki beharko du zein diren istorio bakoitzak iradokitzen dizkion bi hitzak.



GARAZI GOIA / A.P.

Asko maite den norbaiten agurra jasan ezin denean

1978an Seguran jaio zen eta gaur egun BBCn ari da lanean Garazi Goia. Aurreneko

liburua du *Bi hitz*, galdutako amodio baten gaineko obsesioari buruzko nobela. Lehen pertsonan idatzitako istorio honen narratzailea edozein gauza egiteko prest dago galdutako amodioa berreskuratzeke, baita horretarako maite duen pertsona beste neskaren batekin partekatu behar badu ere. Amodio galdu horrek sortu dion minaren eraginez, eromenean, beldurrean, bakardadearen sentimenduan eta sexurako grinan murgilduko da hogeita hamar urte inguruko neska. Baina korapilo latz horiek guztiak gainean izanda ere, aurrera egingen ahaleginduko da, galdutako maitasuna berreskuratu nahian. Nobelaren hasiera Berlingen dago kokatua, hantxe uzten baitu ber-



Bi hitz

Garazi Goia

ALBERDANIA

110 orrialde

14 euro

egileari galdezka

tan behera neska horren bikotekideak ordura arte elkarren artean izandako harremana. Izugarriko kolpea da protagonistarentzat. Ondorioz neska Londresera joango da, bizitza berreraikitzeke asmoz, baina oraingoan bakarrik. Pentsamendu orok beti atzera daraman arren, sexu senak iradokitzen dizkion esperientzia berri guztiak probatzeko beldurrik ez du. ■